



Bergara, 2019ko maiatzak 9

PRENTSA OHARRA

Lur azpiko parkinga, aspalditik datorren proiektua

Udalak harriduraz hartu du herritar batzuek parkingaren obra eteteko egindako eskaera eta argi eta garbi utzi nahi du hau ibilbide luzeko egitasmoa dela. Hain zuzen ere, Bergarako Udalak 2007an erosi zuen orube hori parkingak egiteko asmoarekin. Arrazoi asko direla medio, ezin izan da orain arte gauzatu, baina udal kudeatzaile eta herritar askoren nahia izan da eta da herrian dagoen aparkaleku arazoari konponbidea emateko parking bat bertan egitea. Hala eskatu dute, behin eta berriro, herriko eragile, merkatari eta herritar askok.

Herritar askok eskatu dute, Bergarako Plan Generalak horrela bideratzen du, Mugikortasun Diagnostikoaren aurre-azterketek hala aholkatzen dute eta Bergarako komertzioak behin eta berriro eskatu du.

Udalak 2017ko abenduaren 12an 2018ko udal aurrekontuen zirriborroa aurkeztu zuen eta bertan jasota zegoen Seminarioko parkinga egitea.

2018ko urtarrilaren 29an onartu ziren plenoan 2018ko udal aurrekontuak.

Ordutik uneoro Udalak egitasmo honen berri zabala eman du:

-2018ko uztailaren 24an aurreproiektuari enkajea eman zitzaion.

-2018ko urriaren 2an oinarrizko proiektuarekin.

-2018ko urriaren 17an Udalak lehen dokumentu hau erakutsi zien hainbat eragileri (Bedelkar, Ikastola...).

Data horretatik aurrera, hainbat bilera izan dira Aranzadi Ikastolaren zuzendaritzarekin eta etengabeko harremana dago beraiekin. Are gehiago, Aranzadiren ekarpen guztiak aztertuko ditu Udalak eta horiei erantzuna ematen dabil. Horregatik Udalaren harridura, apirileko plenoan guraso talde batek informazio falta argudiatuz, obrak etetea eskatu zuenean.

Hauek izan dira Udalak Aranzadi Ikastolarekin egindako bilerak:

-2018ko urriak 17. Lehen harremana gaiaren inguruan. Ikastolan prozesua irekiko zutela adierazi zuten. Honako puntuak jarri ziren mahai gainean: Segurtasuna, Zarata, Larrialdiak, eta Sarrera Nagusia ezinbestean erabiltzea. Urriaren 22an gurasoekin bilera egingo zuen zuzendaritzak.

-2018ko azaroak 11. Udalak jakinarazi zion Ikastolako zuzendaritzari proposamenak pleguan txertatzen ari zela. Gorputz hezkuntzarako alternatibengatik galdetu zuen Ikastolak.

-2018ko abenduak 12. Ikastolen Elkarteko zuzendari nagusi Jose Luis Sukia eta Oihana Fernandez de Trokoniz, eta Aranzaditik zuzendaria eta ikasketa burua. Aranzaditik eskatutako puntu guztiak pleguetan jasotzeko asmoa erakutsi zuen Udalak.

-2019ko martxoak 13. Obrako bi faseen berri eman zitzaion Ikastolari. Aranzadiren proposamenak jasota gelditu ziren pleguetan.

-2019ko martxoak 28. Aranzadiko zuzendariarekin eta ikasketa buruarekin obra hasiera eta azken data aldaketa batzuk adostu ziren Aranzadiren egutegira hobeto egokitzeke.

-Eta eragileen ekarpenak jasota, 2019ko urtarrilaren 22an beste dokumentu bat aurkeztu zuen Udalak, non jasota dauden ekarpen, moldaketa eta aurrekontuak zehaztuta.

Bilera horietan alkatea, Hirigintzako teknikariburua, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia, obrako arduradunak eta Ikastolako ordezkariak hartu dute parte.

Ekarpenetan oinarritutako hobekuntzak:

Hala, Aranzadi Ikastolak egindako ekarpenak proiektuan txertatuak izan dira eta horregatik aldaketa nabariak izan dira egiteko moduan eta aurrekontuan.

Honako hauek dira hobekuntzak:

-Opor egunak. Obrak bi fase nagusitan egingo dira; eta horretarako baliatuko dira batez ere Aranzadi Ikastolaren opor egunak (Aste Santukoak eta udakoak).

-Zarata. Zarata ahalik eta gehien arintzea izan da Udalaren eta Aranzadi Ikastolaren lehentasuna; hainbat neurri zuzentzaile adostu dira eta aurreikusita dago zarataren etengabeko kontrola eramateko teknikari bat espresuki kontratatzea.

-Eraikuntza sistema. Hasieran micropilotaje bidez egitea pentsatuta zegoen, baina orain Losa de cimentación bidez egitea onartu da, hau da losa bakarra erabiliz.

-Segurtasunari dagokionez, hasieran Ezponda bidez egin behar bazen ere, orain Muros in situ bitartez egingo da, eraikuntzetik gehiago aldentzeko.

Udala prest dago edozein herritar entzuten, horren ekarpenak jasotzen eta behar duen informazio zein azalpenak ematen, orain arte bezala, baina epe luzeko proiektu honekin aurrera jarraitzeko asmoa dauka.

Esleipen epea atzo, asteazkena, bukatu zen eta orain Kontratazio Mahaia eratuko da. Hortaz, kontratazioa gauzatzeko hilabete inguru emango du.